

IL AZALPEN PROBA • <i>Londres kartoizkoa da</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Phineasek honako hau gogoratzen du batzuetan:

Sei urte izango zituela, ez gehiago, Sorak igerilekuetan abandonatu zuenean. Gogoratzen du aldagela batean zegoela Sorarekin bakarrik. Gogoan du mailu-kolpe batzuk entzuten hasi zirela halako batean, aldagelen gaineko pisuan. Aurrean balu bezala gogoratzen du Phineasek aldagelako sabaiari begira jarri zela Sora; “Alde egin behar dut” esan zuela gogoratzen du Phineasek.

Phineasek gogoratzen du Sorak ez zuela atetik alde egin. Gogoratzen du aldageletako bankura igo eta atearen gainetik egin zuela salto kanpora. Gogoratzen du kanpoko kisketari eragin ziola Sorak gero. Phineasek ezin zuen ate gainetik salto egin, Sorak egin zuen bezala, urte batzuk falta zitzaizkion. Phineas itxita gelditu zen aldagela barruan.

Phineasek gogoratzen du gustatu egin zitzaiola hasieran. Gustatu zitzaion Sorak egin zuen saltoa eta gustatu zitzaion aldagelan bakarrik egotea. Baina, gogoan du, larritzen hasi zen gero. Pentsatu zuen Sora ez zela gehiago itzuliko eta betiko gelditu beharko zuela aldagela laranja hartan. Gogoratzen du negarrez hasi zela orduan, sei urteko negarraz.